



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko martxoaren 30a

24. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobeteari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Lege proposamen honek Nafarroako gizarte osoaren hezkuntza-itun bat erdiesteko topagunea izan nahi du. Hezkuntza da pertsona bakoitzaren errealizazioa eta gizartearen hobekuntza lortzeko gizarte-erakunde erabakigarriena; hezkuntza da hastapeneko desberdintasunak gainditzeko eta pertsonen gaitasunen garapena bultzatzeko trenarik eragingarriena.

XXI. mendearen hasiera honek esparru guztietan marraztu dituen erronkek ezinbestekoa egiten dute hezkuntza-eredu egonkor bat ezartzea, aldi berean behar adinako malgutasuna izanen duena herritarrek prestakuntzaren alorrean dituzten

beharrizanei erantzuteko. Hezkuntza-sistemak lagundu behar du mundua ulertzeko eta hartan modu kritiko, autonomo, parte-hartzaile eta arduratsuz esku hartzeko gai diren pertsonak prestatzen, eta, aldi berean, gizarte-kohesioa eta desberdintasunak gainditzeko faboratu behar du.

Hezkuntza-sistema zuzen eta kalitatezko bat taxutzearen garrantziak beharrezkoa egiten du hezkuntza-erkidegoko kide guztien eta gizarte osoaren lankidetzara: ikasle guztien hezkuntza-arrakasta hezkuntzan parte hartzen duten eragile guztien erantzukizun partekatua da: ikasleak, irakasleak, familiak, administrazioa eta gizarte oro har. Hezkuntzak guztion inplikazioa eta akordioa behar ditu.

Foru Hobetzea onetsi zenetik eta hezkuntza arloko eskumenak eskuratu genituenetik gertatu diren aldaketen ondorioz, beharrezkoa da hausnartzea gure hezkuntza-sistemaren egungo beharrizanei, hobetu beharreko esparruei eta hobekuntza-prozesu horien eragileei buruz. Eskolako arrakasta tasa handia lortu da, eta gainditurik daude jada oinarritzko eskolatzeari eta eskolatzeko orokorrari buruzko itxaropenak. Herritarrek, gaur egun, hezkuntza-kalitate handiagoa eta dauden desberdintasunak zuzentzeko eta gizarte-kohesiorantz aurrera egitera bideratutako ahalegina eskatzen dute, areago ikusita biztanleriaren mugimenduek, immigrazioak, globalizazioak edo ekonomiaren ereduaren aldaketa ezinbestekoak exijitzen dutela herritarrek gai izatea erronka horiei aurre egiteko eta gizarte justu eta solidarioagoerantz aurrera egiteko. Hortaz, gure hezkuntza-sistemak ekitatearen eta bikaintasunaren helburuak uztartu behar ditu.

Hezkuntza eta prestakuntza baliagarri gerta daitezke gizarte nahiz ekonomia arloko desabantailak gainditzeko, baina baita betikotzeko ere. Hezkuntza eta prestakuntza arloko ekitate ezak kostu handia dakar, askotan ikusezina dena, baina ez horregatik irrealagoa. Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateak lehentasuna eman behar die

hezkuntza-sisteman sartzeko ekitateari, parte hartzeari, jokabideari eta emaitzei.

Lege honek erakunde-esparru egonkor eta egoki bat ematea du xede, gure hezkuntza-sistemaren kalitatea eta ekitatea era sistematikoan hobetze aldera. Ez ditu berriro aldatu nahi hezkuntza-antolamendua eta curriculuma; aitzitik, bide eman nahi du hezkuntza-jarduna berrikuntza bizkortuko duen esparru batean gara dadin, pertsonen hezkuntza-premiak zalutasunez jorra daitezen, jardunbide onak sendotu daitezen eta gure hezkuntza-sistema erreferentziazko esparru bihurtu dadin.

I. KAPITULUA

Xedea, helburuak eta printzipioak

1. artikulua. Xedea.

1. Lege honek xede du Nafarroako hezkuntza-sistema arautzea, oinarritzko araudi indardunarekin bat.

2. Hezkuntzaren zerbitzu publikoa baliabide publikoen bidez ordaindutako ikastetxeetan emanen da Nafarroan, ikastetxeak publikoak nahiz pribatu itunduak izan. Zentro pribatu dira legedi indarduna betetzen dutenak baina administrazio publikoen funtsik jasotzen ez dutenak.

2. artikulua. Printzipioak.

1. Nafarroako hezkuntza-sistemaren printzipioak dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 1. artikuluan jasotakoak.

- Ekitatea; alegia, ziurtatuta dago ikasle guztiek jasoko dutela hezkuntza-prozesuak dirauen bitartean beren gaitasunen garapen osorako beharrezkoa duten hezkuntza-laguntza, zein ere diren beren ezaugarri eta egoera pertsonalak edo sozialak.

- Hezkuntza-zerbitzu publikoen kalitatea, oinarritzko konpetentziak eta bikaintasuna lortzerakoan ekitatea ziurtatuko duena eta hezkuntza-sistema hobetzera eta jardunbide onak jasotzera bideratutako ebaluazio prozesuen bidez egiaztatua.

- Hezkuntza-erkidegoaren ardura-kidetzaren hezkuntzan. Administrazio publikoak, gizarte-eragileak, gurasoen elkarteak, irakasleen eta zuzendarien elkarteak, unibertsitatea, gizarte azken finean, zeharo engaiatu behar dira eskolako arrakasta lortzean eta herritar guztien prestakuntzan.

- Eskola-erkidegoen gizarte-konpromisoa, zein gizarte-testuingurutan kokatzen diren, horrexekikoa, garapen pertsonalarekin eta gizarte osoaren aurrerabidearekin konprometitutako jarduketak bultzatze aldera.

3. artikulua. Nafarroako hezkuntza-sistemaren helburuak

1. Nafarroako hezkuntza-sistemaren helburuak dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 2. artikuluan jasotakoak.

2. Nafarroako hezkuntza-sistemak honako helburu hauek ditu:

a) Hezkuntzaren eta irakaskuntzaren garapena, Konstituzioan, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan eta horiek garatzen dituzten legeetan eta arau organikoetan ezarritako printzipioekin bat. Hezkuntza oinarritzko eskubide eta askatasunetan, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunean eta tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarritzen da.

b) Ikasleen nortasunaren eta autonomiaren garapena, non sartzan baitira norbanakoaren erantzukizuna, merezimendu, ahalegin eta ekimen pertsonala, espirtu ekintzailea, haren eskubideak baliatzeko bermea eta haren betebeharrak betetzeko exijentzia.

c) Ekitatea, aukera-berdintasuna, gizarte-kohesioa eta hezkuntza inklusiboa ziurta dadin, oinarri hartuta funts publikoen bidez ordaindutako ikastetxe guztien ardura-kidetzaren hobekuntza etengabea, berrikuntzari, kalitateari, prestakuntzari eta hezkuntza arloko inbertsioari dagokienez.

d) Hezkuntza-premien plangintza orekatua, ikastetxe publikoen eta itunpekoen hezkuntza-zerbitzu publikoa ematean.

e) Sistemaren malgutasuna gizartearen beharrezko aldakorretara egokitze.

f) Eleaniztasunerako prestatzea.

g) Europaren ezagutzaren arloko prestakuntza, giza eskubideak egiaz errespetatzen eta askatasunak bermatzen diren esparrua den aldetik.

h) Oti 3 urtera bitarteko zikloko eskolatzea zabaltzea.

i) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak curriculumean sartzen direla bultzatzea.

j) Balioen hezkuntza, ikaslea gaituko duena iritzi kritikoa eta autonomia eraiki dezan, parte-hartze demokratiko osoa izate aldera gizarte- nahiz ideologia-aniztasuna bereizgarri dituen gizarte batean.

k) Irakasleen gizarte-onarpenera eta sustapen profesionala.

l) Ikastetxeen autogobernua, ondokoak abiaburu: pedagogia, antolamendu eta kudeaketa arloko

autonomia eta hezkuntza-erkidegoaren parte-hartzea.

m) Hezkuntza, askoren arteko lankidetzeta eta truke prozesu baten emaitza gisa, tartean baitira irakasleak, ikasleak, familiak eta bestelako erakundeak. Ikastetxeak erkidegora irekitzea bilatuko da.

n) Hezkuntza bizitza osoan zehar; hartara, helduen hezkuntza, Lanbide Heziketa, araubide bereziko irakaskuntzak eta Europako programak sustatuko dira.

ñ) Hezkuntza-sistema etengabe hobetzea, berrikuntzaren eta sistema osatzen duten osagai guztien ebaluazioaren bidez.

II. KAPITULUA Irakaskuntzen eta Hezkuntza Administrazioaren antolamendua

4. artikulua. Hezkuntza sistemaren etapak.

Nafarroako hezkuntza-sistema antolatzen da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 3. artikuluan jasotzen diren etapa, ziklo, gradu, ikasmaila eta mailetan.

5. artikulua. Ikaskuntza bizitzan zehar.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 5. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako administrazio publikoek kompetentzia berriak identifikatuko dituzte eta kompetentzia horiek erdiesteko behar den prestakuntza eskainiko dute, ikaskuntzaren irisgarritasun unibertsala eta etengabea ziurtatze aldera.

2. Orobat, Hezkuntza Departamentuari dagokio ikaskuntza-eskaintza malguak sustatzea, oinarriko kompetentziak eta, kasua bada, kasuan kasuko titulazioak lortu ahal izan ditzaten hezkuntza-sistema titulaziorik eskuratu gabe utzi zuten gazteek nahiz helduek. Halatan, bereziki garatuko dira helduendako hezkuntza- eta prestakuntza-programak.

3. Helburu horiek lortze aldera, Nafarroako Hezkuntza Administrazioak bultzatuko du familiek eta gizarteak oro har parte har dezaten hezkuntzan. Administrazio publiko guztiak hezkuntzan inplika daitezzen ere bultzatuko da.

6. artikulua. Nafarroako Hezkuntza Administrazioaren modernizazioa.

1. Hezkuntza Administrazioak bultzatuko du teknika eta bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabili eta aplikatu daitezzen bere jarduera garatzeko eta bere eskumenak baliatzeko, ondokoak helburu: prozedurak gardenak eta azkarrak izatea, itxaron beharreko denbora murriz-

tea eta herritarrei eskatzen zaien dokumentazioa gutxitzea.

2. Ezarri beharreko mekanismoak ezarriko dira herritarrek bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabili ahal izan ditzaten, betiere eskatu beharreko bermeezko errespetuarekin, zeinetan jasoko baitira irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakasle funtzionarioen lanpostuak hartzeko edo eskatzeko eta esleitzeko prozedurak, bai eta informazioaren eta teknologia berrien gizartearen aukerei eta beharizaneiei erantzun bat emateko ezar daitezkeenak ere.

7. artikulua. Hezkuntza Administrazioaren eskumenak.

1. Hezkuntza Administrazioak programatuko du derrigorrezko irakaskuntzetako eta derrigorrezkoak ez diren eskaintza osoa, kontuan hartuta betiere funts publikoen bidez ordaindutako ikastetxeen sarea eta sistemaren behar bezalako oreka ziurtatua hezkuntza-laguntzako premia berariazkoa duten ikasleen eskolatzeari dagokionez; hartara, ikastetxeek behar adina baliabide dutela bermatuko du.

2. Hezkuntza Administrazioak egin beharreko politika egiten du, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek izan dezaten ikaspostu bat bizi diren herrian edo gertu dagoen batean. Politika hori garatzean, gainontzeko administrazio publikoek, batik bat toki entitateek, hirigintza arloan hartu beharreko erabakiak hartzeko konpromisoa hartuko dute, ikastetxe publikoak eraiki eta egokitu ahal izan daitezzen lege honetan ezarritakoa betetze aldea.

3. Hezkuntza Administrazioak, horrenbestez, funts publikoen bidez ordaindutako ikastetxe guztien eskolatze irizpideak arautuko ditu, bai eta ikastetxe pribatuekiko kasuan kasuko itunak egiteko baldintzak eta, kasua bada, lehentasunak ere.

III. KAPITULUA Hezkuntzarako eskubidea

8. artikulua. Ikastetxeak

1. Hezkuntzaren zerbitzu publikoa baliabide publikoen bidez ordaindutako ikastetxeetan, Nafarroako Gobernuaren titulartasunekoetan, udalenean eta ikastetxe pribatu itunduetan emanen da Nafarroan.

2. Ikastetxe publikoak dira titularra administrazio publiko bat den ikastetxeak.

3. Ikastetxe pribatuak dira titularra pertsona fisiko edo juridiko pribatu bat den ikastetxeak, eta

ikastetxe pribatu itunduak dira lege ezarritako itunen araubidera atxikitako ikastetxe pribatuak.

4. Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen erregelamendu organikoari buruzko araudia onetsiko du, kontuan hartuta betiere arau honetan xedatutakoa eta hezkuntza etapa ez-unibertsitarioen berezitasunekin eta ezaugarriekin bat etorrira.

9. artikulua. Hezkuntza doakotasuna.

1. Ikasle guztiak arrazoi sozioekonomikoengatik bereizkeriarik egin gabe eskolatzen direla ziurtatzeko, funts publikoen bidez ordaindutako ikastetxeek ezin izanen dute inolaz ere familien dirurik jaso derrigorrezko edo doako irakaskuntzaren truke, ezin izanen dute fundazioen edo elkarten aldeko ekarpenak egiteko betekizunik ezarri, ez irakaskuntzei lotutako derrigorrezko zerbitzurik ezarri, baldin eta zerbitzu horiek ikasleen familiek ordaindu beharra badakarte.

2. Departamentuak jarduera osagarriak eta eskola-zerbitzuak arautiko ditu, bai eta ekonomia-edo gizarte-premiako egoeran daudenek zerbitzu horiek baliatu ahal izateko laguntzak ere. Araudi horrek ziurtatu behar du zerbitzu horiek ez dutela irabazi asmorik izanen eta ikasleek borondatez parte hartu ahal dutela horietan.

3. Hezkuntza Departamentuak behar adina baliabide emanen dizkie ikastetxeei irakaskuntzaren doakotasuna bideratzeko.

10. artikulua. Hezkuntzaren plangintza.

1. Ikaspostuak eskaintzeko programazioan, Hezkuntza Administrazioek harmonizatu egingen dituzte botere publikoek hezkuntzarako eskubidea denei ziurtatzeko betebeharririk heldu diren eskakizunak eta ikasleen, gurasoen eta tutoreen norbanako eskubideak.

2. Hezkuntza Administrazioek doako irakaskuntzen hezkuntza-eskaintza programatu dute, kontuan hartuta betiere zein den ikastetxe publikoen eta pribatu itunduen eskaintza eta, irakaskuntzaren kalitatea ziurtatzeko aldera, hezkuntza-laguntzako premia berariazkoa duten ikasleen eskolatzeko egoki eta orekatua. Orobat, Hezkuntza Departamentuak ziurtatuko du behar adina ikaspostu publiko dagoela, batik bat biztanle berriko eremuetan.

3. Hezkuntza Administrazioak, ikastetxe eta institutu publikoen titularrak den aldetik, ziurtatuko du ikastetxe horiek erreferente izanen direla ekitatearen, kalitatearen eta bikaintasunaren helburuak lortzean, lege honek helburu horiek bilatzen baititu hezkuntza-sistamarako.

11. artikulua. Itunen araubidea.

1. Administrazio publikoekin ituna egiteko moduko irakaskuntzak eman eta eskolatzeko behar

rik izan behar dituzten ikastetxe pribatuak itunen araubideari atxiki ahal izanen zaizkio. Hezkuntza-itunen araubideari atxikitzen zaizkion ikastetxeek kasuan kasuko ituna formalizatu beharko dute Hezkuntza Departamentuarekin.

2. Arestiko idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeen artean, ondokoek izanen dute lehentasuna itunen araubideari atxikitzeko:

a) Eskola-biztanleria behartsuak hartzen dituztenak.

b) Hezkuntza-sistemaren intereseko saiakuntza pedagogikoak egiten dituztenak.

c) Eskubide eta aukera berdintasunaren garapena eta gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunaren sustapena bultzatze aldera, lehentasunezko eta premiazko laguntza emanen zaie, lege honetan jasotzen diren aurreikuspenak aplikatzerakoan eta hezkuntza-itunak lortzerakoan, baterako hezkuntzaren printzipioa garatzen duten ikastetxeei.

3. Itunen zenbatekoak hezkuntza arloko arduar-kidetzarekiko konpromiso eraginkorrari lotuta egonen dira.

4. Ikastetxe itunduek, desabantaila egoeran dauden ikasleen eskolatzeko bereziki inplikaturik badaude, hezkuntza arloko laguntza eta programak garatzeko behar dituzten baliabideak eta laguntza izanen dituzte.

IV. KAPITULUA

Ikaskuntza bizitzan zehar

12. artikulua. Hezkuntza helburuak.

1. Hezkuntza-sistemak bi erronka ditu, bizitzan zeharreko prestakuntzari begira: neoroko prestakuntza eta guztientzako prestakuntza.

2. Hezkuntza-sistemak beharrezkoak diren neurriak bultzatuko ditu, biztanle guztiek izan dezaten prestakuntza bat, gutxienez ere, derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzaren edo horren baliokidearen parekoa.

3. Helburu hori lortze aldera, helduentzako programak taxutuko dira, eta egungo nahiz etorkizuneko ikasleei dagokienez helburu hori ziurtatuko duen hezkuntza-sistema bat bultzatuko da.

4. Informazio-sistemak ezarriko dira herritarrengandik gertu, herritarrek behar duten informazioa eta aholkua izan dezaten bizitzan zeharreko hezkuntza benetan gauzatze aldera, erabakiak hartzen laguntzen baitu.

13. artikulua. Haur hezkuntza.

1. Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren unibertsalizazioa eta doakotasun lortuta, aurrera eginen da lehen zikloko eskolatzea hedatzeari dagokionez, eskaera osoari erantzute aldera.

2. Haur Hezkuntzako lehen zikloa hezkuntza-ziklo bat da, eta familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko eginkizuna betetzen du.

3. Lehen zikloa ezartzen lagunduko dute administrazioek, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikaspostuen eskaintza handitze aldera eta egiaz gauzatzeko aldera kalitate handieneko hezkuntza-laguntza jasotzeko eskubidea.

4. Itunak ezarriko dira Haur Hezkuntzako lehen zikloan lan egiten duten profesionalen lan-baldintzak arautzeko.

5. Ziklo hori foru eta udal administrazioen eta ukitutako familien artean finantzatuko dute. Betiere, doakotasunerako laguntzen programa zabal bat eginen da, zikloan sartzeko berdintasuna ziurtatzeko.

6. Laguntza goiztiarra eskakizun bihurtzen da Haur Hezkuntzan, desabantailako egoera pertsonalen eta sozialen inpaktua murriztea eta haurren gaitasunen garapena estimulatzea helburu.

14. artikulua. Lehen hezkuntza.

1. Oinarrizko kompetentziak izanen dira etapa horretako curriculum- eta pedagogia-garapenaren ardatz nagusia, eta horietan oinarrituko dira ebaluatzeko eta ikasturtez pasatzeko irizpideak.

2. Arreta berezia jarriko zaie matematika eta hizkuntza-komunikazio arloetako kompetentziei, eta lehentasuna emanen zaie kompetentzia horiei lotutako metodologia aktiboiei.

3. Hezkuntza Administrazioak eskolako liburutegia bultzatuko du, hezkuntza-gune den aldetik garrantzi handia duelako oinarrizko kompetentziak garatzerakoan –bereziki irakurketaren ulermenarena eta informazioaren erabilerarena– eta irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan tresna gisa erabiltzerakoan.

4. Lehen Hezkuntzan aniztasuna aintzat hartzeko behar adina neurri taxutuko dira, ikasle guztiek etapako kompetentziak erdiets ditzaten, nork bere gaitasunak zeharo gara ditzan eta arrakasta izateko moduan ekin diezaioten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari.

5. Pedagogia eta antolamendu arloko autonomia baliatuta, ikastetxeek jarduerak ezarri ahalko dituzte ikastorduetatik kanpo, ikasleen artean gerta litezkeen ezberdintasun-egoerak berdintze-

ko. Administrazioarentzat lehentasunezko arretako ikastetxe izanen dira desabantaila egoeran dauden ikasle kopuru handia dutenak, neurririk egoki-enak ezartze aldera ikasle horien garapena erabatekoa izan dadin arlo pertsonalean nahiz gizarte eta hezkuntza arloetan.

15. artikulua. Derrigorrezko bigarren hezkuntza.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburu nagusia izanen da ikasle guztiek lortzea oinarrizko kompetentziak, ondoko gaitasunen garapenaren bidez: kognitiboak, mugimenezkoak, afektiboak eta emozionalak, pertsonen arteko harremanetarakoak, gizarteratzekoak eta zibikoak eta kritikoak.

2. Ikastetxeek etapa horretarako bere proposamen pedagogikoak taxutuko dituzte, aniztasuna eta ikasle guztiek gaitasunak garatzea aintzat hartuta. Hartara, ikasleen ikerkuntza, parte-hartzea eta jarduna sustatzeko neurriak taxutuko dira, eta kontuan hartuko dira ikasleen ikasteko erritmo ezberdinak, bere kabuz ikasteko gaitasuna errazte aldera eta lan elkarlana sustatze aldera.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasmailen arteko koordinazioa sustatuko da, etapa horretako hezkuntza prozesuaren jarraitutasuna lortzea helburu; halatan, ikasgaien arteko diziplinartekotasuna eta erabaki bateratuak hartzea bultzatuko dira bereziki. Arreta berezia jarriko zaie, orobat, zailtasun bereziko egoeran dauden ikasleei, etapa horretako horien ibilbidea babesteko eta ikasle ia gehienek kompetentziak erdiesten dituztela eta titulazioa lortzen dutela ziurtatzeko.

4. Baldintzak ezarriko dira, etapako ikasmilla guztietan edo batzuetan, behar bezalako kualifikazioa duten irakasleek ikasgai bat baino gehiago eman ahal izan diezaioten ikasle talde berari.

5. Behar diren neurriak sustatuko dira, ikasleen norbanako tutoretza eta hezkuntza orientazioa etapa honetako dinamikako funtsezko osagai izan daitezen.

6. Hastapeneko lanbide kalifikazioko programek bide emanen dute lanbide kualifikazioko lehen mailari dagozkion kompetentziak lortzeko.

7. Programen egiturak eta tutoretza nahiz orientazio jardunak eskola-uzteari aurrea hartzen eta oinarrizko kompetentziak lortzen lagunduko dute. Ikastetxeek, toki administrazioek eta bestelako erakundeek, Hezkuntza Administrazioak koordinatuta, programa horien garapenean parte hartu ahalko dute.

16. artikulua. Batxilergoa

1. Batxilergoak helburu du ikasleei prestakuntza bat ematea, zeinaren bidez lortuko dituzten zentzu kritikoa, adimen- eta giza-heldutasuna eta bere interesekin bat datorren espezializazioa garatzeko egokiak diren gaitasunak eta jarrerak, ikaslea goi mailako irakaskuntzan eta lanbide-bizitzan murgiltzeko prestatzea helburu eta ikaskuntza etengaberrako gaitzea helburu.

2. Ikastetxeek egokitzapenak egin behar dituzte, eta behar den laguntza tekniko eman behar dute, ikaskuntza arloko nahasketak dituzten ikasleek eta ezgaitasunak dituztenek batxilergoa egin ahal izan dezaten. Gaitasun handiko ikasleentzako berariazko neurriak ere aplikatu behar dituzte.

3. Tutore lanak ikasleen orientazio pertsonala, akademikoa eta profesionala sendotu behar du, eta, horretarako, batxilergoa eta goi mailako Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeak eta unibertsitateak koordinatuko dira.

4. Aintzat hartuko dira batxilergo motak, ikasle guztiek modu berariazkoagoan garatu ahal izan ditzaten nork bere ahalmenak eta gaitasunak.

17. artikulua. Lanbide Heziketa

1. Administrazioek erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketako ikasketak bultzatuko dituzte, eskaintza erakargarri, malgu eta inguru sozioekonomikoari egokitu eginez. Behar diren hastapeneko lanbide kualifikazioko programak ere ezarriko dira, horiek ere modu malgu eta inguru sozioekonomikoari egokituta.

2. Behar diren neurriak sustatuko dira, Lanbide Heziketa inguruko enpresei estu lotuta egon dadin, balibideak, berrikuntza eta teknologia-transferentzia baliatzea helburu.

3. Lanbide Heziketa enpresa, industria eta ekoizpen egituraren dinamizatzaile izanen da Nafarroako eskualdeetan, eta espiritu ekintzailea eta eremu geografikoak biziberritzeko bitartekoen inplementazioa sustatuko du. Aurrera egingen da Lanbide Heziketako campusa sustatzeko ideian.

4. Hezkuntza-eskaintza malgua eta teknologianahiz kultura-berrikuntzetara eta garapen eredu berri batera egokitua bultzatuko da.

5. Behar diren egokitzapenak ezarriko dira, ezgaitasunak dituzten ikasleek eta langileek Lanbide Heziketako eskaintzan sartu ahal izate aldera.

6. Arreta berezia jarriko zaie lanerako prestakuntzari eta prestakuntza arautuari, pertsonen prestakuntza arloko beharrezaneiei eta horien gizarteratzeari eta laneratzeari erantzuteko.

7. Behar bezala arautuko dira lanbide-akreditazioen eskuratzea, moduluen baliozkotzea, urrutiko Lanbide Heziketa eta langileentzako Lanbide Heziketako eskaintzak.

8. Antolamenduaren eta ordutegiaren aldetik lanarekin bateragarriak diren prestakuntza-eskaintzak ezarriko dira, errazte aldera laneratzea eta lanbide kualifikazioa, bereziki derrigorrezko ikasketak uzteko arriskuan dauden gazteena.

9. Lanbide-konpetentziak aitortzeko eta egiaztatzeko prozedura arautuko da, bai eta enpresetan eginiko praktiken bidezko prestakuntza-ekintzak ere.

10. Prestakuntza-eskaintzek bide eman behar dute derrigorrezko ikasketak osatzeko eta etengabeko prestakuntza bultzatzeko. Neurriak ezarriko dira Lanbide Heziketako ikastetxeen autonomia indartzeko, bereziki ikastetxe bateratuena eta erreferentziazkoena, giza-ingurunearen beharrezaneiei bizkor erantzuteko.

11. Organo eskudunek behar den koordinazioa ezarriko dute, enpleguko eskaintza publikoko parte-hartzea Lanbide Heziketan eskaintzako titulazioetako espezializazioen arabera izan dadin.

18. artikulua. Araubide bereziko irakaskuntzak

1. Behar diren neurriak eta prozedurak ezarriko dira araubide bereziko irakaskuntzak bultzatzeko eta, hartara, pertsonen gaitasunak garatzen laguntzeko.

19. artikulua. Irakaskuntza artistikoak

1. Irakaskuntza artistikoek helburu dute ikasleek kalitatezko prestakuntza artistikoa eskuratu ahal izatea eta profesionalen prestakuntza ziurtatzea dauden diziplina artistikoetan.

2. Irakaskuntza artistikoek barne hartzen dituzte musika, dantza, arte plastikoak eta diseinua, arte dramatikoak eta kultur ondasunen kontserbazioa eta zaharberritzea.

3. Hezkuntza Departamentuak musika irakaskuntzak arautuko ditu, Nafarroako biztanleria osoari kalitatezko eskaintza egiten zaiola ziurtatzeko. Departamentuak, orobat, dantza ikasketak indartuko ditu eta beste ikasketak artistiko batzuk ezartzeko aukera aztertuko du.

4. DBHko eta Batxilergoko ikasleek hezkuntza etapa horiek eta musika edo dantza ikasketak batera egin ahal izateko modua aztertuko da. Ikasleek diziplina artistikoetako prestakuntza errazte aldera, ikastetxe bateratuak sortzeko edo bigarren hezkuntzako institutuak eta musika eta dantza

kontserbatorioak koordinatzeko aukera aztertuko da.

5. Hartara, musika eta dantza eskolak eta kontserbatorioak koordinatzeko bitartekoak ezarriko dira, gaitasun handiagoa duten ikasleentzat ibilbide profesionalizatzaileak ezartzea helburu. Prozedura hori Hezkuntza Departamentuak gainbegiratu du.

6. Goi mailako ikasketa artistikoen eta diseinuko gaineko azterlan bat egingen da, eta, kasu bada, horiek ezartzeko proposamena egingen da.

20. artikulua. Hizkuntzen ikaskuntza

1. Hizkuntzen ikaskuntzak helburu du ikasleak hizkuntzen erabilera komunikatiborako gaitzea, hezkuntza-sistemaren ohiko etapak gorabehera edo hezkuntza-sistemarekiko modu osagarrian.

2. Nafarroako hizkuntza eskola ofizialek bereziki sustatuko dute Espainiako hizkuntza koofizialak nahiz Europar Batasuneko estatu kideetako hizkuntzak ikastea eta gaztelania atzerriko hizkuntza gisa ikastea. Halaber, arrazoi kultural, sozial edo ekonomikoak direla-eta interes berezia duten beste hizkuntza batzuk ikastea erraztuko da.

3. Hizkuntza eskola ofizialek ikastaroak eman ahaliko dituzte, helduek, oro har, hizkuntza eza-guerak gaurkotu ahal izan ditzaten.

4. Hezkuntza Departamentuak arautuko ditu irakasleen prestakuntza errazteko baldintzak, bereziki bere espezialitateko arloak edo gaiak atzerriko hizkuntza batean ematen dituztenena edo beste hezkuntza eleanitzaren esparruan jarduketak batzuk egiten dituztenena; departamentuak, orobat, kasuan kasuko itunak eta programa berariazkoak ezarriko ditu, irakasleen hastapene-ko prestakuntzarako.

21. artikulua. Helduen hezkuntza

1. Helduen hezkuntzak helburu du eraginkor egitea bizitzako edozein unetan hezkuntza jasotzeko eskubidea, pertsona nahiz profesional gisa gauzatzeko eta garatzea, herritar aktibo izatea, gizarteratzea eta enplegua errazte aldera.

2. Helduen prestakuntzak ondoko jarduketak jasoko ditu:

a) Derrigorrezko eta derrigorrezkoen ondoko ikaskuntzetako prestakuntza.

b) Araubide bereziko eta araubide orokorreko hezkuntza-sistemako etapetan sartzea erraztea.

c) Pertsonen informazioa eta orientabidea ematea norberaren interesei eta aukerei gehien egokitzeko zaizkien prestakuntza-ekintzei buruz.

d) Kohesiorako eta gizartearen parte-hartzeko hezkuntza, zeinak jasoko baitu etorkin helduentzako harrerako prestakuntza, herritar-, lan- nahiz gizarte-bizitzan murgiltzeko beharrezkoak diren kompetentziak eta prestakuntza ibilbideak jarraitzeko beharrezkoak direnak garatzea.

e) Hizkuntza kompetentzien eta digitalen prestakuntza eta prestakuntza horiek garatzea.

3. Halaber, lehenetsunez sustatuko dira gizarte bazterkeriaren arriskua gutxitzea errazten duten programak eta sektore behartsuenentzako programak.

4. Helduen prestakuntzak arreta berezia jarriko dio hizkuntza kompetentzien eta digitalen garapenera.

5. Orobat sustatuko dira helduak Lanbide Heziketan sartu ahal izateko neurriak.

V. KAPITULUA

Nafarroako hezkuntza-sistemaren kalitatea eta ekitatea

22. artikulua. Hezkuntza-sistemaren ekitatea

1. Ekitatea Nafarroako hezkuntza-sistemaren funtzionamenduaren oinarriko printzipioa da, eta hori gauzatzeko aldera ikaspostuen behar adinako eskaintza, kalitatezkoa, egingen da ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatu itunduetan, eta neurriak ezarriko dira hezkuntza-laguntza emateko premia berariazkoa duten ikasleentzat, ziurtatuta betiere derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasuna, irakaskuntzako zerbitzu osagarrien hedapena eta beken nahiz ikasteko laguntzen sistema.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Hezkuntza Administrazioak ikaspostuen behar adinako eskaintza ziurtatuko du ikasleak bizi diren udalean edo irakaskuntzaren programazioan ezartzen den udalean, ondoko printzipioak aplikatuta: hurbiltasuna, baliabideen arazoizkotasuna, biztanleriaren banaketa, komunikazioa eta zerbitzu publikoa ziurtatu eta antolatzeko beste zenbait printzipio orokor. Lanbide Heziketari begira, neurriak taxutuko dira ikasleak berdintasun-bermearekin sartu ahal izan daitezen prestakuntza zikloetan.

3. Departamentuak Nafarroako hezkuntza-mapari buruzko azterlan xehatua egingen du, egin beharreko aldaketak eta zuzenketak egin daitezkeen eta, hartara, ikastetxeen sarearen antolamendua lege honetan ezarritako helburuekin bat etor dadin.

23. artikulua. Nafarroako Hezkuntza-sisteman sartzea

1. Nafarroako Gobernuak dekretu bidez arautuko du ikasleen eskolatzeari ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan. Prozedurak ziurtatuko du sartzeko eskubidea berdintasun egoeran baliatu ahal izatea, bai eta familien hautatzeko askatasuna ere. Prozedurak, orobat, oinarri izanen du erabat ziurtatuko zaiela ikaspostu bat izateko eskubidea Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta derrigorrezko irakaskuntzak egin nahi dituzten ikasleei.

2. Ikasleak onartzeko prozedura irizpide objektiboetan oinarrituko da, zeinen bidez ebatzi ahalko baitira ikastetxe publiko eta pribatu itundu bakoitzean eskainitako ikaspostuak eskatzaileen kopurura iristen ez diren kasuak. Nafarroako Gobernuak ezarriko ditu irizpideak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritako irizpideekin bat.

3. Hala eskatzen duten udalen kasuan, eragin-eremuak ezarriko dira. Hori guztia gorabehera, familiaren egoitzatik edo lantokitik gertuen dagoen ikastetxean eskolatzeari erraztuko da, non eta familiak ez duen lehentasun horrekin bat ez datorren beste ikastetxe bat hautatu.

24. artikulua. Eskolatzeari batzordeak.

1. Nafarroako Gobernuak, eskolatzeari buruzko foru dekretuaren esparru orokorrean, eskolatzeari batzorde orokorra sortu eta arautuko du, bai eta tokiko eskolatzeari batzordeak ere. Batzordeen osakera irekia eta askotarikoa izanen da, eta batzorde horiek hasieratik gainbegiratu dute funts publikoen bidez ordaindutako ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesua eta onarpenari buruzko arauak betetzen direla, eta egoki irizitako neurriak proposatu dizkiete administrazioei.

2. Prozesuak ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatu itunduetan eskolatzeari oreka ziurtatuko du, bai eta ardura-kidetasuna ikasleen eskolatzeari ere.

3. Hezkuntza-premia bereziko ikasleak eskolatzeko, aintzat hartuko da eskola orientazioko profesionalek horri buruz eginiko txostena, eta horren arabera proposatuko da ikastetxe arrunt batean edo hezkuntza bereziko ikastetxe batean eskolatzeari.

25. artikulua. Aniztasunari erantzutea

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako hezkuntza-printzipio bat den aldetik, aniztasunari erantzuteak bere baitan biltzen ditu ikasle guztien premiei, interesei, motibazioei eta gaitasunei erantzun bat ematen

dieta hezkuntza arloko erabakiak, horrela ikasleek bere gaitasun pertsonalak zeharo garatu ahal izan ditzaten eta oinarritzko konpetentziak bereganatu ahal izan ditzaten.

2. Ikasleen aniztasunari erantzutea pedagogia-jarduketara arrunt eta ohikoen artean sartuko da. Jarduketara horiek nahiko ez badira, neurri berariazkoagoak hartuko dira. Hezkuntza inklusiboa izanen da jarduketara eta neurri horiek baliatzeko irizpideak.

3. Aniztasunari erantzuteko neurriek ekitatea eta aukera berdintasuna lortzen lagundu behar dute, halako moduz non ikasle guztiek izanen baitute hezkuntza-arrakasta lortzeko modua bere beharrezko erantzuten dieten neurrien bidez.

4. Hezkuntza Departamentuak behar diren neurriak eta baliabideak planifikatu ditu, ikasleak bere premien arabera hezkuntza-laguntza jasotzeko duen eskubidea bete dadin. Berariazko neurriak ziurtatuko dira ohiko inguruneetan: gela alternatiboak eta trantsiziozkoak, hezkuntza-unitateak bigarren hezkuntzan eta Lanbide Heziketako programa berariazkoak. Halaber, arreta berezia emanen zaie hezkuntza bereziko ikastetxeei, bere baliabideak eta antolamendu arloko neurriak ikastetxe horietan eskolatutako ikasleen premiei egokitu ahal izan ditzaten.

5. Ikastetxeetako irakaskuntzako gobernu eta koordinazio organoek aniztasunari erantzuteko antolamenduan, plangintzan eta garapenean parte hartuko dute, erabaki horiek ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren parte izanen baitira.

6. Aniztasunari erantzuteko neurriak baliatuko dira irakaskuntza ez-unibertsitarioko etapa guztietan, etengabeko prestakuntzan, unibertsitate sartzeko probetan eta unibertsitateko ikasketetan.

26. artikulua. Desberdintasunak konpentsatzea.

1. Departamentuak planak bultzatuko ditu, ekidite eta zuzentze aldera faktore sozial, ekonomiko, kultural, geografiko, etniko edo bestelakoetatik eratorritako desberdintasunak, administrazioen parte hartzearekin eta entitate publikoen eta irabazi asmorik gabekoen lankidetzarekin.

2. Funts publikoen bidez ordaindutako ikastetxe guztiek izanen dute behar adina giza baliabide eta baliabide material, egoera sozio-ekonomikoa edo kulturala dela-eta derrigorrezko hezkuntzaren helburuak lortzeko zailtasun bereziak dituzten ikasle-egoera konpentsatzeko.

3. Lehentasunezko laguntzako ikastetxeak ezarriko dira, arautu egingen dira zuzendaritza-taldean,

irakasle taldeen, gizarte nahiz hezkuntza laguntza-ko langileen berezitasunak, plantillak egonkortzeko ustez behar diren pizgarriak eta ordutegi-malgutasuna hezkuntza-erkidegoaren beharrezanez egokitzeko, betiere kalitatezko hezkuntza-zerbitzua ematea helburu.

4. Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolatzea hedatuko da, erraztearren ikasleen arteko berdintasuna, desberdintasunen konpentsazioa eta familia eta lan bizitza bateragarri egitea.

5. Hezkuntza Departamentuak berariazko jarduketak eginen ditu hezkuntzaren kalitatea eta ekitatea bermatzeko hala eskatzen duten landa eremuetan eta Piriniokoetan, ezaugarri bereziak baitituzte irisgarritasunari, komunikazioei, biztanlebanaketari edo ekonomia-garapenari dagokienez. Jarduketa horiek arautzean, ondokoetan jarriko da azpimarra:

a) Berariazko pizgarriak ezartzea, irakasleen nahiz zuzendaritza-taldeen egonkortasunera bideratuak, ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta hezkuntza-berrikuntza arloko neurriak sendotze aldera.

b) Udal nahiz eskola liburutegiak eta informazioaren teknologia berriak sustatu eta garatzea.

c) Kalitatezko ekipamendu publikoak sendotzeko jarduketa lehentasunezkoa.

27. artikulua. Hezkuntzaren kalitatea.

1. Eskola arrakasta ziurtatuko duten hezkuntza-programak garatu behar dira hezkuntza kalitatezkoa izanen bada, eta horrek gure gizartean esan nahi du herritarrek, oro har, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapa edo ziklo bat egin behar dutela gutxienez ere.

2. Hezkuntzaren kalitateak eragin berezia du aniztasunari emandako erantzunean, hizkuntzen arloko prestakuntzan, informazioaren gizarteko teknologien erabileraren bidezko ikaskuntzan, Oitk 3 urtera bitarteko zikloko eskolatzean, laguntza goiztiarrean, etengabeko hezkuntzan, ikastetxeen autonomian eta irakasleen prestakuntzan.

3. Ebaluazioaren kultura ezartzea funtsezko ardatza da hezkuntza-sistamarako, hezkuntza arloko emaitzak eta prozesuak balioestearen bidez ikaskuntzaren kalitatea hobetze aldera legean nahiz hezkuntza-programa bakoitzean ezarritako helburuen betetze maila egiaztatzeko.

4. Hezkuntza-orientazioko profesionalak eta zerbitzuak hezkuntzaren kalitatearen osagai dira; izan ere, irakasleei, ikasleei eta familiei laguntza emateko baliabide baliotsuak dira, ikasle guztiek bere gaitasunak zeharo garatu ahal izateko zereginean.

5. Hezkuntza Administrazioak, orobat, bultzatu eginen ditu ikasle guztien aniztasuna aintzat hartzearekin, eskola bizikidetasunarekin eta gatazkak modu baketsuan konpontzearekin lotutako planak eta programak, eta bultzatu eginen ditu berrikuntza eta irakurtzeko eta idazteko ohitura, hizkuntzen ikaskuntza, espiritu ekintzailea, norberaren ikaskuntzaren antolakuntza, eguneroko arazoaren konponbidea, sormen-adierazmena eta metodo zientifikoan lehen urratsak ematea, bai eta kultura eta kirol jarduerak ere.

28. artikulua. Ikasteko laguntzak, beka eta doakotasuna eta zerbitzu osagarriak.

1. Funts publikoen bidez ordaindutako ikastetxeek ezin izanen dute ez familien dirurik jaso doako irakaskuntza jasotzearen truke, ez fundazioei edo elkartei ekarpenak egiteko betebeharra ezarri ez eta irakaskuntzari lotutako derrigorrezko zerbitzurik ezarri ere, baldin eta zerbitzu horiek jasotzeko baldintza bada ikasleen familiek dirua ordaintzea.

29. artikulua. Ikasteko beka eta laguntzak.

1. Hezkuntza Departamentuari dagokio ikasteko bekei eta laguntzei buruzko estatuko legedia arau bidez garatzea eta betearaztea. Halaber, ikasteko bekei eta laguntzei buruzko Estatuko sistema publikoa osatuko du, eskolatze goiztiarra eta derrigorrezkoaren ondoko ikasketak eta unibertsitateko graduak, gradu ondoko eta doktoretzako ikasketak bultzatze aldera, eduki behar diren gaitasunak eta jarrerak dituzten ikasle guztiek bukatu ahal izan dezaten bere prestakuntza-ibilbidea, familiaren egoera sozioekonomikoa horretarako traba izan gabe.

2. Bekei buruzko araubide orokorraren esparruan, Hezkuntza Departamentuak beken eta laguntzen sistema bat ezarriko du, Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztien eskura egon dadin derrigorrezkoaren ondoko ikaskuntzen eskaintza, herritarren bizilekua zein ere den. Mailegu-beken aukera ere aztertuko da.

3. Bikaintasun beka ezarriko dira, gaitasun handieneko ikasleen akuilagarri, talentuak hobekuntza pertsonala eta gizartearen hobekuntza ekar ditzan. Mailegu-beken aukera ere aztertuko da.

30. artikulua. Jantokiko eta eskola garraioko zerbitzu osagarriak.

1. Hezkuntza-sisteman sartzeko aukera berdintasuna ziurtatze aldera, ikasleek, behar baldin badute, jantokiko eta eskola garraioko zerbitzu osagarriak izanen dituzte, arautzen denari jarraituz.

2. Ikasleen familia edo gizarte inguruabarren-gatik komeni baldin bada, Hezkuntza Departamentuak laguntzen sistema bat ezarri ahalko du garraio edo jantoki zerbitzua emateko, akordioak eta hitzarmenak eginez toki nahiz eskualde entitateekin edo erakunde publikoekin edo irabazi asmorik gabekoekin.

VI. KAPITULUA

Berrikuntza hezkuntza sisteman

31. artikulua. Berrikuntza eta ikerketa sustatzea.

1. Departamentuak bultzatuko du berrikuntza pedagogikorako eta kurrikularrerako proiektuak garatzea. Izan ere, proiektu horien bidez sustatuko da ikastetxeak irakaskuntza-ikaskuntzaren betebeharrak eta premia berrietara egokitzea, trebetasun eta ahalmen pertsonalak ahal den guztian garatzera, ikasle guztiek eskolan arrakasta izatera eta hezkuntza jarduera hobetzera.

2. Bereziki sustatuko dira honakoetan sakontzen duten ikerketak eta berrikuntzak: oinarrizko kompetentzien garapena eta zehaztapena, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikaskuntzarako erabiltzea, ikasleak eleaniztasunean heztea eta kompetentzia zibikoak lantzea.

32. artikulua. Oinarrizko kompetentzien garapena.

1. Oinarrizko kompetentziak dira Nafarroako ikasleek oinarrizko hezkuntza amaitzerakoan barnaturik eta garaturik eduki behar dituztenak beren errealizazio pertsonala lortzeko, herritartasun aktiboaz baliatzeko, helduen bizitzara modu asegarrian sartzeko eta bizitzan zehar ikaskuntza iraunkorra garatzeko gai izateko.

2. Oinarrizko kompetentziak honako helburuekin sartzeko dira curriculumean:

a) Era guztietako ikaskuntzak integratzeko, formalak, informalak eta ez-formalak.

b) Ikasleei aukera ematea ikaskuntza formalak, informalak eta ez-formalak integratzeko, eta haiek harremanetan jarri eduki mota desberdinekin, ikasleak haiek orokortzeko eta era guztietako egoera eta testuinguruetan aplikatzeko.

c) Irakaskuntza orientatzea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuari buruzko erabakien oinarrian dauden edukiak eta ebaluazio irizpideak identifikatzeko.

3. Honakoak dira oinarrizko hezkuntzan ikasleek ikasi eta garatu behar dituzten oinarrizko kompetentziak:

a) Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ama hizkuntzan, hizkuntza koofizialetan eta atzerriko hizkuntzetan.

b) Kompetentzia matematikoa.

c) Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkareraginean jarduteko kompetentzia.

d) Informazioaren tratamendua eta kompetentzia digitala.

e) Kompetentzia soziala eta herritar gisako kompetentzia.

f) Kompetentzia kultural eta artistikoa.

g) Ikasten ikasteko kompetentzia.

h) Autonomia eta ekimen pertsonala.

4. Pentsamendu berritzailearen oinarri gisa, honakoak sustatuko dira: pentsamendu kritikoa, sormena, ekimenerako gaitasuna, arazoei konponbidea ematea, arriskuaren ebaluazioa, erabakiak hartzea eta sentimenduen eta emozioen kudeaketa konstruktiboa.

5. Hezkuntza Departamentuak behar diren neurriak ezarriko ditu ikasleek, beren hezkuntza ereduari dagokion esparruan, aipatu oinarrizko kompetentziak garatu eta barnerratu ditzaten sustatzeko.

6. Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak indartuko dira honakoetan sakontzen duten programetarako: aniztasunari arreta ematea, berariazko programak garatzea, ikastetxeen autonomia eta kudeaketa, eta lege honetan sarturiko berrikuntzarik gabeko garapena. Halaber, unibertsitateek, erakunde nahiz elkarteek eta tokiko nahiz eskualdeko entitateek ikastetxeekin lankidetzan jardutea sustatuko da.

33. artikulua. Hizkuntzen irakaskuntza eta eleaniztasuna.

1. Nafarroak ibilbide luzea egina du hizkuntza ereduaren ezarpenari eta hizkuntzen ikaskuntzari dagokienez. Euskararen irakaskuntza, D eta A ereduaren, hizkuntza ereduak finkatzeko, aberasteko eta zabaltzeko aldiari ekiteko garrantzizko eskarmentua da.

2. Eskolak sustatuko du ama hizkuntzaren sendotzea eta euskararen irakaskuntza, legean eta haren garapen normatiboetan ezarritakoari jarraituz.

3. Irakaskuntzak Europar Batasuneko hizkuntza baten edo biren irakaskuntza erraztuko du, bai eta Europako erkidegoaz kanpoko hizkuntzen irakaskuntza ere, Europako herritartasunaren testuinguruan.

4. Irakaskuntza elebiduneko ereduak –atzerriko hizkuntzan- sartuko dira Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentroetan.

5. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak programa horretan sartuko dira, eredu jarraitutasuna ziurtatzeko.

6. Eskatzen duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, baldin eta irakasleei eta programazio didaktikoari dagozkion baldintzak betetzen badiuzte, atzerriko hirugarren hizkuntza bat eskainiko dute, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek ikas dezaten, horretarako eskola-ordutegia luzatuta.

7. Eskatutako hizkuntza konpetentzien profila duten irakasleak irakaskuntzan eta irakasleen kidegoetan nola sartu arautuko da, bai irakaskuntzaren arloko funtzio publikoan sartzeko proben bitartez, bai leku-aldatze lehiaketen bitartez, edo, bestela, behin-behineko edo aldi baterako kontratazioen bitartez.

8. Hezkuntza Departamentuak ikasleentzako eta irakasleentzako egonaldiak sustatuko ditu beste herrialde batzuetan, beste hizkuntza batzuetako hizkuntza konpetentziak hobetzeko, eta Europar Batasuneko herrialdeetako egonaldien kasuan, Europako herritartasuna indartzeko.

9. Departamentuak sustatuko du hezkuntza etapa guztietako ikastetxeek Europako programa desberdinetan parte har dezaten. Lanbide Heziketako ikasleei dagokienez, lantokiko prestakuntza modulua Europar Batasuneko enpresetan egitea sustatuko da. Halaber, prestakuntza zikloetako moduluren batean atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza sartuko da.

10. Hizkuntzen irakaskuntza herritarren etengabeko prestakuntzaren atal nahitaezkoa da, eta prestakuntza horretara bilduko da.

11. Hezkuntza Administrazioak sustatuko du beste herrialde batzuetako erregioekin lankidetzahitzarmenak sinatzea, baterako ekintzak garatzeko hezkuntzaren arloan.

12. Ikastetxeek ikasten ari den hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kulturaren ezagutza sustatuko dute, eta horretarako, ikasleek jardura artistikoak, musikalak, antzerkiaren arlokoak eta bestelakoak eginen dituzte, ikasten duten hizkuntza lan hizkuntza gisa erabilia.

13. Sortzen diren ikastetxe guztiek irakaskuntza elebiduneko eskaintza egokia izanen dute, atzerriko hizkuntza batekin, eta hurrengo etapetan horrek jarraitutasuna izatea ziurtatuko da.

14. Administrazioak bultzatuko du atzerriko hizkuntzekiko eredu elebidunen ezarpena, jada existitzen diren zentroetan, derrigorrezko irakaskuntzak eskaintzen dituztenetan nahiz derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzak eskaintzen dituztenetan.

34. artikulua. Informazioaren gizarteko teknologiak eta konpetentzia digitala.

1. Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei behar dituzten ekipamenduak eta zerbitzuak emanen dizkie, informazioaren gizarteko teknologiak eta irakaskuntza prozesuak erabil ditzaten, hezkuntzaren arloko maila guztietan baliabide teknologikoak eta komunikaziorako baliabideak ikertzeko, garatzeko eta zabaltzeko.

2. Informazioaren gizarteko teknologiak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan sartuko dira, bai eta kudeaketa administratibo eta akademikoko prozesuak optimizatzeko lanetan eta familiekiko komunikaziorako bideetan ere.

3. Honakoak dira berrikuntza-arlo honen helburuak:

a) Ikastetxeei gizartearen errealitate teknologikoarekin bat datozen komunikazio-azpiegiturak eta ekipamenduak ematea, eta irakasleen eguneratzea ziurtatzea, horiek guztiak modu eraginkorrean erabil ditzaten.

b) Ikastetxeei gizartearen errealitate teknologikoarekin bat datozen komunikazio-azpiegiturak eta ekipamenduak ematea.

c) Irakaskuntzarako sarbidea erregulatzea, eta hezkuntzari aplikatutako informazioaren gizarteko teknologien erabilerari eta teknologia horien alderdi tekniko eta didaktikoei buruzko konpetentziak kreditatu behar izatea.

d) Ebaluazio sistemak ezartzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien ezarpena eta orokortzea hobetzeko.

e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak curriculum-arlo desberdinetan sartzeak haien erabilera zuzenari buruzko analisisia eta gogoeta ekarriko du.

35. artikulua. Irakurtzeko prozesuak hobetzea.

1. Jardura batzuk eginen dira irakurmena bultzatzeko, hura baita oinarrizko konpetentziak lortzeko eta hobetzeko funtsezko ardatza. Halaber, irakurketa digitaleko konpetentzia sustatuko da.

2. Honakoak izanen dira berrikuntza-arlo honen helburuak:

a) Era guztietako agiri idatzien ulermena garatzen eta barneratzen lagunduko duten planak, programak eta proiektuak aplikatzea.

b) Eskoletako liburutegiek eskola-ordutegian eta eskolaz kanpoko ordutegian lan egin dezaten bultzatzea, eta bidea ematea liburutegia hezkuntza-erkidegoaren topaleku gisa erabil dadin.

c) Eskola-orduez kanpo irakurketa bultzatzea, beste departamentu eta administrazioekiko baterako programazioak eginez.

36. artikulua. Hezkuntza zibikoa bizikidetasunaren aldeko hezkuntza

1. Ikastetxeak bizikidetasun demokratikoaren ikaskuntzarako eta hezkuntza-erkidegoko kideen arteko gatazkak modu baketsuan ebazteko guneak dira. Hezkuntza administrazioak erraztasunak emanen ditu hezkuntza-erkidegoak, gizarte erakundeek eta inguruko elkarteek parte hartu eta inplika daitezzen pertsonetik errespetuzko jarraiek eta jokabideak finkatze aldera.

2. Hezkuntza zibikoak eta bizikidetasunaren aldekoak bilatzen dute ikasleak prestatzea demokraziaren, berdintasunaren eta askatasunaren printzipioetan oinarritutako kultura zibiko batean bizi diren herritarrak izan daitezzen, bai eta dituzten eskubideak eta betebeharrak aitortzeko ere.

3. Hezkuntza zibikoak bilatuko du ikasleek ezagut ditzatela giza eskubideen garrantzia eta norainokoa, kultur aniztasuna, tolerantzia, ingurumenaren babesa edo aldaketa klimatikoa.

4. Ikastetxeek bitartekotza-programak ezarri ahalko dituzte gatazkei aurrea hartu eta konponbidea emateko; ikasleen arteko laguntza-programak, eta eskolaz kanpoko jardueretarako eta GKE-ekiko lankidetzajardueren programak, elkartasuna, errespetua eta lagun hurkoaren ezagutza eta ulermena ekarriko dituztenak.

5. Hezkuntza zibikoak helburu du prebentzioz jokatzeko bizikidetasun eremuak eraikitze, ikuspegi positibo batetik, erkidegoan modu aktiboan lagunduz.

6. Eskola eremu egokia da gizartean bizitzen eta elkarrekin bizitzen irakasteko eta ikasteko.

VII. KAPITULUA

Irakasleen prestakuntza eta irakasle-funtzioaren balorazioa

37. artikulua. Irakaslanaren aitortpena eta balorazioa.

1. Irakasleek ardura garrantzitsuena dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan; horrek berarekin

dakar ikaskuntza indartzea eta garatzea ezagutzak, trebetasunak eta balioak transmitituz. Halaber, eskubidea dute hezkuntza-proiektua prestatzen eta determinatzen laguntzeko, eta erantzunkidetasunez jokatu behar dute haiak aplikatzeko.

2. Lan hau zuzen gauzatzeko, beharrezkoa da irakasleek autoritate, lanbiderako estimulu eta aitorpen sozial egokiak edukitzea.

3. Nafarroako Foru Komunitateak, irakasle funtzionarioak hartzeko hautapen prozesuetan, modua izanen du borondatezko proba osagarriak jartzeko; horren helburua da irakasleengan prestakuntza sustatzea lege honetan zehaztutako hezkuntza-sistemaren premiei erantzuteko behar diren kompetentzien inguruan.

4. Kalitatezko hezkuntza bat indartzeko eta bultzatzeko, behar diren neurriak ezarriko dira, irakasleen lanean bikaintasuna lortzera bideratuak; aldi berean, haien lan baldintzetan behar diren hobekuntza-neurriak ezarriko dira. Neurri horiek lotuta egonen dira irakasleek irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan hobera egitearekin eta ikerketa-, berrikuntza- eta prestakuntza-programetan parte hartzearekin.

5. Hezkuntza Departamentuak lanbide-sustapeneko neurriak ezarriko ditu, eta, bereziki, honakoak kontuan hartuko ditu:

a) Tutore funtzioaren aitortpena, zehazten diren pizgarrien bitartez.

b) Ikastetxean dedikazio berezia duten eta hezkuntzaren berrikuntza dakarten plan, programa eta proiektuetan parte hartzen duten irakasleen lanaren aitortpena.

c) Pizgarriak ematea lehentasunezko ikastetxeetan edo programa jakin batzuetan lan egiten duten irakasleei; hain zuzen ere, arlo hauetan aritzen direnei: desberdintasunen berdintzea, aniztasunaren arreta, eskola-abandonuaren prebentzioa eta arau honetan adierazitako berrikuntza programak.

d) Hezkuntza elebiduneko programak garatzen dituzten ikastetxeetan beren arloko eskolak atzerriko hizkuntza batean –Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen baldintzetan– ematen dituzten irakasleen lanaren aitortpena.

e) Hezkuntza etapa guztietan sustapen horizontala egitea. Halaber, hasierako prestakuntzako prozesuetan, prestakuntza jarraituan eta irakaskuntza-praktiketan parte hartzen duten irakasle seniorren lana sustatzea.

f) Goraipamen eta sariak sortzea beren dedikazioarengatik, konpromisoarengatik eta kompetenziarengatik horrelakoak merezi izan dituzten hezkuntza-erkidegoko kideei urtero banatzeko, proiektio sozialeko beste lanbide batzuetan gertatzen den bezala. Funtzio hori Nafarroako Eskola Kontseiluari esleituko zaio.

38. artikulua. Irakasleen hasierako prestakuntza

1. Departamentuak hitzarmenak egin ahalko ditu unibertsitateekin, bereziki NUPekin eta UNE-Den zentroekin, irakasleen hasierako prestakuntza antolatzeke eta haien kalitatea bermatzeko, Europako goi mailako hezkuntza-guneko graduen eta graduondokoen sistemari dagokion esparruan.

2. Irakasleen hasierako prestakuntza hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrak eskatzen dituen titulu- eta kualifikazio-premiei egokituko zaie. Diziplinen edukiak sakonki menperatzeaz gainera, irakasleek honakoekin zerikusia duten kompetentziak barneratu beharko dituzte: berariazko didaktikarekin loturiko kompetentziak, alderdi psikopedagogikoak, hezkuntza emozionala eta kultura artekoa, taldeen lidergoa, gatazken konponbidea eta bizikidetasunaren sustapena, familiekin lan egiteko trebetasunak, aniztasunaren arreta, eskolak kudeatzeko eta antolatzeke oinarritzko tresnak, taldean lan egiteko trebetasunen garapena, atzerriko hizkuntza bat edo biren jakite maila ona eta kompetentzia digitala.

39. artikulua. Irakasleen etengabeko prestakuntza.

1. Hezkuntza Administrazioak irakasle guztien etengabeko prestakuntza ziurtatuko du. Irakasleek, izan ere, programatzen diren jardueretan parte hartzeke eskubidea eta betebeharra izanen dute. Horretarako, ikastetxeetan, Hezkuntza Administrazioak taldeko irakasle-ekipoen koordinazioa erraztu eta bultzatuko du, lan horretan diharduten prestakuntza eta berrikuntza didaktikoaren organoak diren aldetik.

2. Etengabeko prestakuntza irakaskuntza arloko orientabidearen eta aholkularitzaren mesedera izanen da: Departamentuak hitzarmenak egin ahalko ditu unibertsitateekin eta erakunde publiko eta pribatuekin, irakasleen prestakuntzarako jarduerak antolatzeke.

3. Irakasleek etengabeko prestakuntzan lehenetsunezko hartzen diren lerroetako jardueretan parte hartzeak eragina izanen du lanbide-sustapenean, ezartzen diren baldintzetan.

4. Hezkuntza Administrazioak arautuko du zer prozedura erabiliko den informazioaren eta komu-

nikazioaren gizarteko teknologietako eta atzerriko hizkuntzetako irakasleen kompetentziak egiaztatzeke.

5. Hezkuntza Administrazioak prestakuntza planak ezarriko ditu aldian-aldian, eta sustatuko du Lanbide Heziketako irakasleek prestakuntza-egonaldiak egin ditzaten Nafarroako enpresetan eta Europar Batasuneko estatu kidekoetan.

6. Hitzarmenak ezarriko dira atzerrian ikasketak, lanpostuko trukeak eta egonaldiak egin daitezkeen, hizkuntzak hobetzea helburu, eta ikasleek atzerriko hizkuntzetako prestakuntzarekin lotutako proiektuetan eta planetan parte har dezaten.

7. Lantokietako egonaldiak ezarriko dira, Lanbide Heziketako irakasleak teknika berrietan, aurre-rapen teknologikoetan eta produkzio-prozesu berrietan duten prestakuntza hobetzeko. Hori, noski, onuragarria izanen da irakaskuntza lanerako.

8. Irakasleen kidegoetan sartzeko akreditatutako bestelako titulazioak eskuratzea sustatuko da, bai eta ikerketa ere, betiere hezkuntza sistemarentzat onuragarria bada.

40. artikulua. Orientazio- eta tutoretza-eginkizuna.

1. Tutoretza- eta orientazio-eginkizuna lagungarri gertatuko da, berariaz, ikasgeletan dagoen aniztasunaren barruan, gaitasun, baldintza, jokabide edo interesak hobeki garatzeko, betebeharrei erantzuten eta aukeren berdintasuna bermatzen laguntzen duten beste profesional eta zerbitzu batzuekin koordinatuta.

2. Tutoretza eta orientazioa honakoak lortzera bideratuta daude: gizabanakoaren gaitasun guztien garapen integral eta orekatua; irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen autoerregulazioa; eta orientazio pertsonal, akademiko eta profesionala. Hala ere, tutoretza eta orientazioa ikaslearen gainerako pertsonetikiko harremanak eta laneratzea lortzera bideratuta daude. Orientazioaren etengabeko izae-rak beharrezko egiten du zerbitzu espezializatuen eta hezkuntza-etapa desberdinetako tutoreen arteko koordinazioa, horrela koherentzia eta esku-hartze komuna bermatzeko.

3. Gauzatzen diren jarduerak lotuta egonen dira bizitzan zeharreko ikaskuntza bermatzearekin, eta berehalako helburu gisa izanen dute ikaskuntza batetik bestera modu egokian pasatzen lortzea, bai eta irakaskuntza horien eta lanaren munduaren arteko trantsitu egokia lortzea ere. Hezkuntza-eginkizun hori betetzeko, hezkuntza administrazioak behar diren baliabideak jarriko ditu.

4. Arreta berezia eskainiko zaie Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua ez lortzeko arriskua duten ikasleei eta DBHn sartzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleei, eskola-abandonuaren arriskua saihesteko eta hezkuntzaren arrakasta lortzeko.

5. Hezkuntza Departamentuak orientazio- eta tutoretza-eginkizuna arautuko du hezkuntza-etapa desberdinetako ezaugarrien arabera eta ikastetxeak kokatuta dauden testuinguruaren arabera, ikasleen betebeharrei erantzun ahal izateko.

7. Tutoretza espezializatuak ezarri ahal dira ikasleak eskolatzeko berariazko premiei erantzuteko berariazko esku-hartzeak behar dituzten lehen-tasuneko ikastetxeetan.

VIII. KAPITULUA

Ikastetxeen autonomia

41. artikulua. Ikastetxeen autonomia.

1. Ikastetxeek autonomia pedagogikoa eta kudeaketara autonomia izanen dute. Autonomia hori gauzatzeko, gobernu-organoei honakoak egin ahaliko dituzte: helburu gehigarriak ezarri eta haiek lortzeko estrategiak zehaztu, ikastetxea antolatu, zer baliabide zehatz behar diren erabaki eta hezkuntza proiektua aplikatzeko prozedurak zehaztu.

2. Ikastetxeen kudeaketa-autonomia orientatuko da hezkuntza sistemaren ekitatea eta bikaintasuna bermatzera.

3. Ikastetxeei autonomia aitortzen zaie antolaketaren esparruan, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketan, eta pedagogiaren arloan. Honakoak jasoko dira autonomia horretan:

a) Legeen eta arauen erregulazioaren esparruan, funtzionamendu bereki eta malgurako araubide bat edukitzeko ahalmena; araubide hori ikastetxea dagoen ingurunearen eskakizunei egokituko zaie.

b) Eskumenak ematea inguruneke entitateekin behar diren lankidetzaren harremanak ezartzeko, hezkuntza xedeekin.

c) Kudeaketa ekonomikorako autonomia, betiere administrazio publikoen aurrekontu-arauen eta kontratazio-arauen arabera.

42. artikulua. Autonomia pedagogikoa.

Autonomia pedagogikoz baliatuta, ikastetxe publikoek antolamendu malguko ereduak ezarri ahaliko dituzte, honako helburuekin:

1. Ikasleen premiei erantzutea eta ikaskuntzan zailtasun handienak dituztenen eskola-errendimendua hobetzea, eta desberdintasunen konpentsazioa bermatzea.

2. Ikasleek ikaskuntza artistikoetara eta hizkuntzen irakaskuntzara sar daitezela erraztea, eta haiek beste irakaskuntza batzuekin bateragarri egitea.

3. Aukerak ematea araututako musika-ikaskuntzak ikasten ari diren ikasleek beren ikasketak normaltasunez jarraitu ahal izan ditzaten.

4. Lortzea ezen emaitza onenak eta interes handiena duten ikasleek beren gaitasunak ahal den guztian gara ditzaten.

43. artikulua. Ikastetxearen hezkuntza proiektua.

1. Ikastetxe guztiek, beren autonomia pedagogikoz baliatuz, hezkuntza proiektu bat eduki behar dute. Hezkuntza proiektuak ikastetxearen identitatea eta helburuak zehaztuko ditu, eta jarduera orientatuko du, ikasleek oinarriko konpetentziak eskura ditzaten. Ikastetxe pribatuetan, hezkuntza proiektuak, kasu bada, ikastetxearen berezko izaera islatuko du.

2. Hezkuntza proiektuan honakoak zehaztuko dira: antolaketa pedagogikorako irizpideak, hezkuntzarako lehentasunak eta planteamenduak eta ikastetxea identifikatzen duten lan-prozedurak, betiere eskolako testuinguruaren ezaugarri sozial eta kulturaletan eta ikasleen hezkuntza premietan oinarrituta. Proiektuak ebaluaziorako adierazleak jasoko ditu, eta kanpoko ebaluazioaren menpe egonen da.

3. Hezkuntza proiektuak curriculumen zehaztapena eta garapena jasoko ditu.

4. Proiektua lagungarria izanen da hezkuntza-erkidegoko sektoreen arteko lankidetzaren eta ingurune sozialarekiko harremana sustatzeko.

5. Hezkuntza proiektuak eta Administrazioak horri buruz ematen dituen arauzko jarraibideek Urteko Programazio Orokorra lantzeko markoa osatuko dute.

44. artikulua. Antolaketarako eta kudeaketarako markoa

1. Antolaketarako autonomiak berarekin ekarriko du ikastetxe bakoitzak barne funtzionamendurako egitura eta arauak zehaztea, erabakiak bat etor daitezela irakasten diren hezkuntza-etapekin, irakaskuntzen modalitatearekin eta hezkuntza- eta gizarte-ingurunearekin.

2. Ikastetxearen antolaketari eta funtzionamenduari buruzko erabakiak lagungarriak izanen dira kalitatezko hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, hezkuntza-proiektua aplikatuta.

3. Ikastetxe publikoen kudeaketa ikastetxeko zuzendaritzaren ardura da, eta ardura horren barruan honakoak ere sartzen dira: irakasleen eta ikastetxeko gainerako profesionalen kudeaketa, ondasunak eta zerbitzuak eskuratu eta kontratatzea, ikastetxeko baliabide ekonomikoen banaketa eta erabilera, eta ikastetxeetako instalazioen hobekuntza.

4. Hezkuntza proiektutik eratorritako beharren arabera –zeinak ikastetxeko zuzendaritza-proiektuan zehaztuta baitaude– ikastetxe publikoetako zuzendaritzak Departamentuari proposatuko die zein irakasle lanpostutan bete beharko diren irakasleen lanbide-titulazioaren edo –gaitasunaren baldintza gehigarriak.

5. Ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta, Hezkuntza administrazioak ikastetxe bakoitzaren langileen plantilla finkatuko du.

45. artikulua. Zuzendaritza-taldeak

1. Zuzendaritza-taldeek lehentasunezko erantzukizuna izanen dute ikastetxe publikoetako lidergoan, kalitatean eta berrikuntzan.

2. Zuzendaritza-taldea ikastetxe publikoak gobernatzeko organo exekutiboa da. Honakoek osatzen dute: zuzendariak, idazkariak, ikasketa buruak eta arauz edo ikastetxearen antolamendurako autonomiaren arabera ezartzen diren gainerakoek. Zuzendaritza-taldeko kideak hezkuntza proiektuaren arduradunak dira.

3. Beren autonomiaz baliatuta, ikastetxeek zuzendaritza-kontseilu bat sortu ahalko dute, zuzendaritza edo/eta koordinazio eginkizunak esleiturik edo delegaturik dauzkaten klaustruko kideek osatua.

4. Hezkuntza Administrazioak zuzendaritza-taldean eskuetan jarriko ditu beren eginkizuna eraginkortasunez betetzeko behar diren baliabideak. Halaber, pizgarri profesionalen sistema bat sortuko du, ikastetxearen kudeaketa hobetzeari eta hezkuntza-proiektuko hezkuntza helburuak lortzeari lotutakoa.

5. Departamentuak behar diren neurriak ezarriko ditu, zuzendaritza-taldean jardueraren errazteko; hain zuzen ere, arlo hauetan: langileak eta baliabide materialak eta prestakuntza programen plangintza eta antolaketa.

6. Behar diren neurriak garatuko dira zuzendaritzari ikastetxeak kudeatzeko autonomia emateko.

7. Zuzendaritzako langileak ebaluatutako izanen dira, honako irizpideen arabera: kudeaketaren eraginkortasuna, efizientzia eta erantzukizuna eta

emaitzen gaineko kontrola, finkaturiko helburuen arabera.

46. artikulua. Ikastetxe pribatu itunduen autonomia.

1. Ikastetxe pribatu itunduek antolamendurako eta kudeaketarako autonomia izanen dute, hezkuntza-itunen araubidea arautzen duten arauen arabera, zuzendaritzarako eta partaidetzarako organoei esleitutako eskumenei dagokienez, hezkuntza zerbitzu publikoan txertatzeko eta hartatik heldu diren premiei erantzuteko.

2. Ikastetxe pribatu itunduek beren hezkuntza proiektua egin beharko dute, eta hura Hezkuntza Administrazioak gainbegiratu eta, kasua bada, onetsi beharko du.

IX. KAPITULUA

Administrazioen arteko lankidetzak

47. artikulua. Toki entitateekiko lankidetzak.

1. Toki entitateak Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan arituko dira irakaskuntzaren programazioa egiteko, hezkuntza arloko jarduketak taxutzeko eta derrigorrezko eskolatzeko betetzen dela zaintzeko. Halaber, behar den informazio demografikoa emanen dute eskolatzeko-prozesuak antolatzeko, eta jarduera edo zerbitzu osagarriak egiten lagundu ahalko dute.

2. Hezkuntza Departamentuak, kasuko esku-men-esparruan, toki entitateekin koordinatuko ditu jarduketak, hezkuntzara bideratutako baliabideei dagokienez eragingarritasun eta efizientzia handiagoa lortze aldera eta lege honetan ezarritako helburuak lortzen laguntze aldera.

3. Departamentuak prozedurak eta tresnak ezarri ahalko ditu, hezkuntza arloko ekintzak toki entitateekin batera kudeatuko direla faboratzeko eta sustatzeko, eta ikastetxeen eta administrazio publikoen arteko lankidetzak sustatuko du.

48. artikulua. Ikastetxe publikoak eraikitzea.

1. Udalak Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan arituko dira, ikastetxe berriak eraikitzeke behar diren orubeak lortze aldera, Hezkuntza Departamentuak ikastetxeak eraikitzeari buruz eginiko plangintzarekin bat. Lurzatiak ahalik eta gehien doituako zaizkie ikastetxearen nahiz hezkuntza-erkidegoaren eskakizunei eta beharrezan, eta hezkuntza eta gizarte guneak sortzea bultzatuko da.

2. Ikastetxeen eraikinak irisgarritasuneko, energia-efizientziako eta pedagogia- nahiz irakaskuntza-beharrizanen arabera irizpideei jarraituz egingo dira. Lehiaketek eranskin bat izanen dute,

zeinean ongi zehaztuko baitira ikastetxearen erai-kinak izan beharreko ezaugarri zehatzak.

49. artikulua. Ikastetxe publikoen erabilera.

1. Hezkuntza Departamentua lankidetzan arituko da beste administrazio batzuekin, ikastetxeetako edo udaletako kirol, liburutegi eta kultur instalazioen erabilera bikoitza ahalbidetuko duten prozedurak ezartzeko.

50. artikulua. Hezkuntza-zerbitzuak ematea.

1. Departamentua eta toki entitateak, hiri hezitzaileen ikuskeratik abiatuta, hezkuntza-zerbitzua ematean, ondokoan inguruan, esaterako, aritu daitezke lankidetzan:

a) Hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzearekin lotutako programak eta jarduketak garatzea, bereziki eskola-absentismoaren prebentzioran, jarraipenean eta kontrolean.

b) Helduen etengabeko hezkuntzaren esparruko programak eta jarduketak garatzea.

c) Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak garatzea, bereziki ikastetxeak erkidegoari irekitzeko planak garatzeari eta oporretan egindakoei lotutakoak.

d) Hezkuntzako laguntza, babes eta indartze programak bultzatzea.

e) Ikastetxeetan matrikulatutako ikasleek udal instalazioak erabiltzea.

f) Eskola liburutegien eta udal liburutegien erabilera koordinatua.

g) Kirol instalazioen erabilera koordinatua.

h) Hastapeneko lanbide kualifikazioko programak eta lanbide tailerrak garatzea.

2. Arestiko idatz-zatian aipatutako lankidetzara eragingarria izan dadin, kasuko hitzarmenak egiten dira.

51. artikulua. Unibertsitateekiko lankidetzara.

1. Hezkuntza Departamentua lankidetzan arituko da Nafarroan diharduten unibertsitateekin, bereziki Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta UHUNen ikastetxe elkartuekin, hezkuntza-sistema hobetzen laguntzen duten ondoko alderdietan besteak beste:

a. Ikasleei goi mailako hezkuntzan sartzea erraztea.

b. Irakasleen hastapeneko eta etengabeko prestakuntza.

c. Unibertsitateko ikasketak egiten dituzten ikasleek praktikak egitea hezkuntza-sisteman.

d. Lanbide Heziketako goi-mailako tituludunak unibertsitateko ikasketetan sartzea.

e. Hezkuntza elebiduneko programak bultzatzea.

f. Helduen hezkuntza, eta hezkuntza bizitzan zehar.

g. Hezkuntza berrikuntzako eta ikerkuntzako lanak eta proiektuak egitea unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin lankidetzan.

h. Irakasleen kidegoetako irakasleak unibertsitateko departamentuetan sartzea, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko zazpi-garren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

X. KAPITULUA

Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa

52. artikulua. Xedea eta helburuak.

1. Hezkuntza-sistemaren ebaluazioak lagundu du aztertzen eta balioesten sistema horretan garatzen diren prozesuak eta jarduketak, bai eta hezkuntza-erakundeak eta -politikak ere. Ebaluazioak behar den informazioa emanen die hezkuntza-erkidegoari eta gizarteari, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen hobekuntza etengabea bultzatzeko, ikastetxeen eta hezkuntzako zerbitzu eta laguntza osagarrien eta hezkuntza arloko politiken hobekuntza bultzatzeko. Horrek guztiak helburu du herritar guztientzako kalitatezko hezkuntza-sistema bat erdiestea.

2. Ondokoak dira, besteak beste, ebaluazioaren helburuak:

a) Hezkuntza-sistemaren kalitatea, efizientzia eta ekitatea hobetzea.

b) Hezkuntza arloko helburuen betetze mailaren azterketa eta informazioa.

c) Hezkuntza arloko politikari eta jardunari buruzko gomendioak eta orientabideak prestatzea.

d) Sistemaren kalitatea, ekitatea eta aukera berdintasuna sustatzea.

3. Ebaluazioa funts publikoen bidez ordaindutako ikastetxe, jarduera eta zerbitzu guztietara iritsi da.

53. artikulua. Ebaluazio esparruak.

1. Hezkuntzaren Lege Organikoak adierazten duen legez, hainbat ebaluazio mota garatuko dira, hala nola diagnosi-ebaluazio orokorra, hezkuntza-sistemaren ebaluazioa, ikastetxeen ebaluazioa eta zuzendaritza-lanaren ebaluazioa.

2. Nazioarteko erakundeen ebaluazio probetan ere parte hartuko da.

3. Ikastetxeek kudeaketaren arloan autonomia handiagoa izatean, hezkuntza-jarduna gidatzeko adierazle eraginkor gisa jardun dezaketen ebaluazio sistemak ezarri behar dira.

4. Nafarroan hezkuntza-ebaluazioko erakunde bat sortzeko aukera aztertuko da.

XI. KAPITULUA

Hezkuntza-erkidegoaren parte-hartzea

54. artikulua. Hezkuntza-erkidegoa.

1. Hauek dira hezkuntza-erkidegoa osatzen dutenak: irakasleak, ikasleak, familiak, guraso elkarteak, administrazioak eta zerbitzuetako langileak, ikastetxeekin lankidetzan aritzen diren entitateak eta udalak, hots, ikasleen hezkuntza prozesuan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten pertsona eta talde guztiak.

2. Hezkuntza-erkidegoko kide guztiak aitortuak dituzten eskubideak baliatu ahal izateko azpiegitura nahikoa izanzen dutela sustatu eta erraztuko da.

3. Ikastetxeko Eskola Kontseiluak, ikastetxearen parte hartzeko organoa den aldetik, bide emanen du hezkuntza-erkidegoko kideek ikastetxearen bizitzari eragiten dioten erabakietan parte har dezaten.

55. artikulua. Hezkuntza-konpromisoko akordioa

1. Ikastetxeek hezkuntza-konpromisoko akordioa ezarri ahal dute, eta hartan parte hartuko dute hezkuntza-erkidegoko sektore guztiak; akordioak islatuko ditu hezkuntza proiektua betetzera, bizikidetasunerako gune bat lortzera eta eskola-ingurunearekin harreman eragingarria izatera bideratutako helburuak eta jarduerak.

56. artikulua. Ikasleak

1. Departamentuak eta ikastetxeek faboratuko dute ikasleek ikastetxearen bizitzan parte har dezaten, hezkuntza-prozesuak eta ikastetxeetako bizikidetasuna hobetzen laguntze aldera.

2. Ikasleek ikastetxeko organoetan eta jardueretan parte hartuko dute.

3. Ikasleak bitartekari izanzen dira geletako bizikidetasunaren arloko prozesuetan eta gatazkak konpontzeko prozesuetan.

4. Ikasleek ikastetxeetan lan egin eta parte hartzeak lagunduko du ikasleek ikas dezaten autonomia eta erantzukizunez jarduten eta herritar aktibo eta kritiko izaten.

5. Ikasleen eskubideen eta betebeharren araudia berri bat garatuko da, kontuan hartuta lege honetan bizikidetasunari, hezkuntza zibikoari eta gatazken konponbideari buruz emandako ikuspuntua.

6. "Hezkuntza-konpromisoko akordioa" hausteak edo ez betetzeak –ikastetxeko Eskola Kontseiluak aztertuko du– hezkuntza-neurri zuzentzaileak edo, kasua bada, zehatzaileak ezartzea ekarriko du.

57. artikulua. Familiak

1. Gurasoek edo legezko tutoreek ikastetxeekin eta irakasleekin lankidetzan aritzeko betebeharra dute, bereziki Haur Hezkuntzan eta Oinarrizko Hezkuntzan.

2. Familiek eskubidea eta betebeharra dute seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzeko eta seme-alaben irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak babesteko. Hezkuntza Administrazioak behar bezalako informazioa emanen die familiei, eskubide horren baliatzea errazteko eta sustatzeko.

3. Hezkuntza Administrazioak sustatuko du ikasleen gurasoen elkarteak, federazioak eta elkarteen konfederazioak sortu eta garatzea.

4. Gurasoen Mahaiaren lana eta jarduna erraztuko da.

5. Guraso elkarteek ikastetxeetan azpiegitura izatea erraztuko da.

58. artikulua. Irakasleak

1. Irakasleek hezkuntza-prozesuan eta hezkuntza-erkidegoan duten garrantzia lege honetako IV. kapituluan jaso da.

2. Irakasleek ikastetxeko organoetan parte hartuko dute, araudian ezarritakoarekin bat.

3. Irakasleen eta zuzendarien elkarteetan lana erraztuko da, hausnarketarako eta eztabaidarako guneak diren aldetik, hezkuntza-prozesuak, ikastetxeetako bizitza eta hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko iradokizunak eta proposamenak egin ditzaten.

59. artikulua. Nafarroako Eskola Kontseilua

1. Azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bidez Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra sortu zen, zeina Foru Komunitateko unibertsitatekanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrarekin zerikusia duten gizarteko sektoreek parte hartzeko eta aholkularitza lanetarako daukaten goiko organoa baita.

2. Nafarroako Gobernuak Eskola Kontseiluaren lana erraztu eta bultzatuko du, Nafarroako hezkuntza-sistema hobetzeko interesgarriak izan litezkeen hezkuntza arloko aferei buruz eztabaidatzeko eta parte hartzeko organoa den aldetik.

60. artikulua. Gizarte eta hezkuntza programak.

1. Administrazioen baliabideak koordinatuta, gizarte eta hezkuntza programak eta jarduketak ezarri ahalko dira, ingurunearekin harreman eragingarrian hezkuntza-helburuak lortzeko.

1. Programa horiek herri bereko ikastetxeek partekatu ahalko dituzte, udalarekin koordinatuta, edo zenbait herritako ikastetxeek ere bai, kasuan kasuko udal administrazioak ados jarrita.

2. Hezkuntza Departamentuak programa horiek babesteko hitzarmenak egin ahal izateko baldintzak ezarriko ditu.

Lehen xedapen gehigarria.

Legeak Nafarroako hezkuntza-sistemaren garapenaren alderdi berariazkoak bakarrik jaso-

tze aldera, bertan ez dira errepikatu oinarrizko legedian eta legedia arruntean araututako alderdiak, salbu eta testuari indar gehiago ematen diotetan.

Bigarren xedapen gehigarria.

Lege honen gaztelaniazko testuan maskulinoa baliatu da bi sexuetako pertsonak, karguak edo jarduerak izendatzeko, baina horrek ez du esan nahi bereizkeriarik egiteko asmoa dagoenik. Hezkuntza-aukera horren xede bakarra da arauaren irakurketa erraztea eta azkartzea, hala nola adierazpen-ekonomia areagotzea.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Lege honek ekonomia-txostena ere izanen du, aurreikusitako neurriak ezartzeko.

Azken xedapena.

Lege hau taxutu eta izapidetzean hezkuntza-erkidegoaren parte-hartzea sustatuko da; hartara, Parlamentuko lan-talde bat eta gizarte eztabaidako eta parte-hartzeko gune zabal bat sortuko dira.

